

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure bezeroak prezio finko bat ordaintzeko prest daude menu pertsonalizatu bakoitzeko, eskaintzen dugun produktua janari azkar osasungarria delako.

Diru-sarrerak ordainketa bakarrekoak dira, bezeroak erosketa bakoitzean ordaintzen duelako. Gure enpresaren diru-sarrera nagusia aktiboen salmentatik dator, hau da, prestatutako plateren salmentatik. Prezioa ez da etengabe aldatzen, horregatik prezio finkoa erabiltzen dugu. Garrantzitsua da jakitea bezeroak zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden, proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko. Informazio horrekin, inbertsioa berreskuratzeko aukera kalkula daiteke. Horrela, diru-sarreraren sistema argi eta egonkorra lortzen dugu.